



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

2025 ETA 2028 URTE BITARTEAN (BIAK BARNE), SANTA BARBARA PLAZAN EGITEN DEN BARAZKI ETA FRUITUEN NAHIZ ESKUZ LANDUTAKO JANARIEN SALMENTA IBILTARIKO AZOKAN SALTOKIAK ESLEITZEA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1. IZAERA ETA KOKAPENA

2025, 2026, 2027 eta 2028 urte bitartean barazki eta fruituen nahiz eskuz landutako elikagaien ekoizleek Santa Barbara plazan egiten duten salmenta ibiltari eta aldian behingo azokako saltokiak esleitzeko deialdia kudeatzea —norgehiagoka baliatuko da horretarako—.

Saltzaileak berak zuzenean landatuak edo/eta ekoiztiak edo eraldatuak diren barazki eta fruituak eta eskuz landutako janariak saldu ahal izango dira bertan.

Olioa, ezitia edo ardoaren moduko produktuen kasuan, baimenaren titularrek lehengaiaren sortzaileak ere izan beharko dute.

2. KUDEATZEKO MODUA

Udalak bideratuko du, zuzenean, Santa Barbara plazako barazki eta fruituen eta eskuz landutako elikagaien ekoizleen azokaren kudeaketa.

3. AZOKA EGUNAK ETA ORDUTEGIA

Aldian behingo azoka izaki, ostegun eta larunbatetan egingo da, goizeko 07:30etatik 14:00etara bitartean.

4. TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK

Saltokiak jartzeak, bide publikoa okupatzeagatik tasa – 7.1 udal ordenantzaren 5. epigrafean “Salmenta ibiltariko aldian aldiko azokak” arautua dagoena– ordaintzeko beharra sortuko du.

Udal ordenantza fiskaletan eta arau osagarrietan finkatutakoari jarraiki likidatuko dira tasa horiek; udaleko Diru-bilketa Zerbitzuak kudeatuko ditu, eta ez dira itzuliko edozein arrazoi pertsonal dela eta interesduna azokara joaten ez bada ere, ezta eguraldi txarragatik ere.

5. UDAL ERREGISTROA

Saltokiak kontrolatu eta kudeatze aldera, Santa Barbara plazako barazki eta fruituen nahiz eskuz landutako elikagaien ekoizleen Udala Erregistroa sortuko da. Ekoizle edo saltzaile bakoitzaren datu hauek jasoko dira bertan:

- Erregistroan izena eman zen eguna.
- Titularraren datu pertsonalak
- Titularkideen datu pertsonalak.
- Zein azokatan diharduen.
- Diharduen saltokien zenbakiak.
- Saltzen dituen produktuen zerrenda.
- Gizarte Segurantzako erregimena.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zerga: epigrafea eta izena eman zen eguna



- Behar izanez gero, osasungarritasun erregistroaren zenbakia.
- Behar izanez gero, nekazaritza ustiategiaren zenbakia.

6. SALTOKIEN EZAUGARRIAK:

Instalazio desmuntagarrietan egingo da salmenta azokan. Beti ere baimena beharko da alde zuzenetik.

Gehienez 36 saltoki izango dira.

Vitoria-Gasteizko Udalak beretzat gordetzen du lizentzia kopurua aldatzeko eskubidea, bai eta kategoria bakoitzeko lizentzi kopura eta haien kokapena eskaeraren eta antolaketa-beharren arabera.

Azoka ahalik eta erakargarrien gerta dadin, honako merkataritza-nahastura objektiboa ezarri da. Eskaera nahikoak ez existitzeagatik kategoria batzuk beteko ez balira, aldaketak eman litezke merkatuaren interesaren alde.

1. Fruitu eta barazkiak, prosezatu gabeko produktuak, olioak, eztiak eta ardoak saltzeko 21 saltoki. Honen arabera:

— Barazki eta fruituak:	16 saltoki
— Ardoak eta likoreak:	3 saltoki
— Eztiak:	1 saltoki
— Besteak (olioak, arraultzak...)	2 saltoki

2. Eskuz landutako beste janariak saltzeko 15 saltoki. Honen arabera:

— Gozogintza/ogia:	6 saltoki
— Gazta:	6 saltoki
— Hestebeteak:	2 saltoki
— Besteak:	1 saltoki

3 metroko zabalera izango dute saltokiek, eta dagokion planoan zehazten diren lekuetan jarriko dira, eta ezin izango da baimendutako baino azalera handiagorik erabili.

Saltoki guztiak diseinu bera edukiko dute, eta Gasteizko Udalak adierazitako kokalekua errespetatu beharko da beti ere.

Gasteizko Udalak adierazitako lekuetan ipiniko dira saltokiak.

Saltokia baino handiago ezin izango diren eta gutxienez 60 cm-ko garaiera izan beharko duten mahai edo astotxoetan jarri beharko dira salgaiak, inolaz ere ez lurrean.

Salgai pisagarri eta neurgarriak eskaintzen dituzten saltokiek arauzko baskula edo neurtzeko beste tresna batzuk beharko dituzte, behar bezala homologatuta. Era berean, neurtzeko tresna horiek arauzko egiaztapenak eginak izan beharko dituzte, eta horiek dagozkien etiketen bidez ziurtatuko dira.

Erabat debekatuta egongo da azokan edonolako megafonia jartzea.

Ekoizlearen kontura joango da saltokia muntatu eta desmuntatzea.

Eguneko jarduna bukatutakoan saltokia egon den lekua eta ingurua garbi utzi beharko dute ekoizleek.

Udal erregistroan aurkeztu beharko da saltokitik uko egiteak.



7. SALTOKIA ALDATZEA

Saltokia aldatzeko eskaerak erregistro telematikoaren edo presentzialaren bidez egingo dira. Eskaera hori baloratu ondoren, baldintzak betetzen baditu eta eskatutako lanpostua eskuragarri badago, aldaketa hori egin ahal izango da. Aldaketak arrazoituta egon beharko dira, eta interesdunak egunean izan beharko ditu bere betebeharrak Udalarekin.

Arau orokor gisa, baimenaren indarraldiak iraun bitartean leku aldaketa bat bakarra onartuko da. Aldaketa-eskaerak sartzeko eta betetzeko ordenaren arabera hartuko dira kontuan.

8. SALGAIK

Salmenta ibiltarirako udal baimen edo lizentzian adierazten diren produktuak bakarrik merkaturatu ahal izango dira azokan, eta saltzaileak bere lur sail edo instalazioetan landatutako edo/eta ekoiztako edo eraldatutako produktuak izan beharko dute.

Hirugarren batek eraldatutako produktuen kasuan, ekoizleak markatzaile gisa agertu beharko du, dago-kion etiketan bere datuak jaso daitezten: sozietatearen izena eta helbidea, osagaiak, alergenok, iraungi-tze-datak edo kontsumo lehenetsiaren datak, kontserbatzeko modua, behar izanez gero.

Debekatuta dago produktuen birsalketa.

Baimenduta dago saltoki berean produktu mota baino baino gehiago saltzea.

Janariak, edonolakoak izanik ere, itzalpean eduki beharko dira.

Janariak saltzeari, ontziratzeari eta gainerakoei dagokienez, indarrean dauden higiene nahiz osasunaren alorreko araudiak bete beharko dira.

Kanpoko kutsaduratik behar bezala babestuta egon beharko dute produktuek, kontserbazio baldintza egokietan, eta, behar izanez gero, hoztuta –hozteko bitrinetan–. Gainera, prebentziozko higiene eta osasun arauak oro errespetatu beharko dira, janariak eskuztatzean.

9. ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA HIGIENE ETA KONTSUMO BALDINTZAK

1. Deialdi honen babesean zuzeneko salmenta egiten dituzten ustategietako titularrak izango dira saltzen dituzten produktuen segurtasun eta kaltegabetasunaren erantzuleak.
2. Saltokien kokapenak, egiturak eta materialek Araudiak ezarritako higiene eta osasunaren alorreko betebeharrak bete beharko dituzte.
3. Saltokiek honako hauek izango dituzte:
 - Beharrezkoa balitz, hotzaren kateari ondo eusteko ekipamendu egokia, termometro eta guztiz.
 - Gorabehera meteorologikoen eta eguzki-erradiazioak produktuak ez kaltetzeko sistema.
4. Saltokian uneoro eskura egon beharko dute produktuaren jatorria ziurtatzen duten agiriak.
5. Trazabilitate-erregistroak eramango dira, gutxienez informazio hau jasota uzteko: saldutako produktuak eta kantitateak eta salmenta-datak eta –lekuak. Trazabilitate-erregistro horiek eduki beharko dira, kontrol-ofizialeko zerbitzuei erakusteko, haiek hala eskatuz gero, eta agintaritzak eskudunarentzat eskuragarri eduki beharko dira gutxienez hiru urtez.
6. Debekatuta dago elikagaiak maneiatzea, haiek zatikatzea izan ezik.



7. Ontziratu gabeko elikagaiek errotuluan edo ikusteko moduko kartelean honakoak azaldu beharko dituzte: produktuaren izendapena eta jatorria, eta kasua hala balitz, alergenoen identifikazioa, kontsumitzaileen batek behar izanez gero.
8. Zatikako salmentaren elikagaietan: jatorrizko ontzia gorde beharko da, etiketa eta guztiz, salmenta amaitu arte, beti identifikatuta gera dadin elikagaiaren jatorria.
9. Ontziratutako produktuak indarrean dagoen araudiaren ildotik etiketatu beharko dituzte.
10. Ondo gordetzeko hozteko sistema behar duten produktu guztiek hozkailu-erakustokian egon beharko dute hotzaren katea ez apurtzeko.
11. Elikagaiak ukitu behar dituzten langileak oso zorrotzak izango dira une oro beren garbitasunari dagokionez eta indarreko legediak xedatutako Elikagaien Higieneko Prestakuntza eduki beharko dute.
12. Elikagaiek higie eta osasunaren alorreko baldintza egokiak izan beharko dituzte, eta ezin izango dute lurzorua zuzenean ukitu.
13. Ezin izango dira biltegiratu ere ekoizlearenak ez diren beste izen komertzialekin ontziratuta egon edo halaxe kutxetan sartu.
14. Salgai jarritako produktuei aplikatu beharreko higie eta osasun araudietan finkatutako baldintzak bete beharko dituzte saltokiek.
15. Saltokien titularrek ageriko lekuan jarri beharko dute udal baimena, baita prezioen zerrendak ere –irakurtzeko moduan, hau da, galdetu beharrik ez izateko moduan–, balizko erreklamazioak bideratzeko helbidea, eta eskuz landutako janarien kasuan, gainera, osasun erregistroko zenbakia.
16. Saltokiek eta salgaiak garraiatu eta gordetzeko ibilgailuek garbitasun egoera egokian egon beharko dute.
17. Ahal den neurrian, elikagai postuek ur gune bat izango dute gertu.

10. IBILGAILUAK

Salgaiak garraiatu eta gordetzeko ibilgailuek horretarako adierazten diren bideetatik joan beharko dute, agindutako noranzkoan.

Saltzaileen premietara eta merkataritza-ordutegira egokituko dira zamalanak, baina ezingo dira hasi, inolaz ere, goizeko 07:00ak baino lehenago, ezta 9:00ak baino geroago ere. Nolanahi ere, azoka bukatu ondoren kargatu beharko dira produktuak, 14:00etatik 15:30era bitartean.

Azokarako salgaiak garraiatu eta gordetzeko baino ezingo dira baliatu ibilgailuak, eta ezingo da bertatik deus ere saldu. Ez betetzea, lizentzia baztertzeko edo baliogabetzeko arrazoia izango da.

11. SALTOKIETAKO LANGILEAK. BALDINTZAK

1. Parte hartzaile guztiek erregistratu egin beharko dituzte egunean egindako salmentak.
2. Saltzeko lizentzia emango bazaio, deialdia egin duen udal administrazioari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki beharko ditu eskabidea egiten duen pertsonak. Ofizios egiaztatuko du Gasteizko Udalak hori horrela den, jasotako eskabideak baloratzekoan. Baztertu egingo da baloratzeko unean eskakizun hori betetzen ez duen eskabide oro.
3. Halaber, nahitaezko eskakizuna da baita salgaien ekoizle edo/eta egile izatea.



4. Pertsona fisikoaren kasuan, titularrak ez ezik, beste bi titularkideek ere baliatu ahal izango dute baimena —ezkontidea nahiz 1. eta 2. mailako odol ahaidetasu-neko seni-deek izan ahalko dira.
5. Pertsona juridikoaren kasuan, bazkide diren hiru langilek jardun ahal izango dute saltzen, edo bi bazkidek eta enpresaren soldatapeko pertsona batek, edo bazkide batek, enpresaren soldatapeko bi langilerekin.
6. 10 langile baino gutxiago dituzten eta beren produktuak eskulangintza bidez ekoizten dituzten enpresek bakarrik parte hartu ahal izango dute azoka horretan.
7. Titularrak zein titularkideek Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta emanda egon beharko dute baimenak irauten duen denbora osoan.
8. Pertsona juridikoaren kasuan, soldatapeko langileak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta emanda egon beharko dira, besteren konturako langile gisa.
9. Saltokian egongo diren langileen datuak berariaz adierazi beharko dira salmenta ibiltarirako lizentzia eskatzen denean. Nolanahi ere, ezingo dira bi titularkide baino gehiago izan lizentzia bakoitzeko, eta saltokiak esleitzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak oro bete beharko dituzte.
10. Baimenaren titularra hilko balitz, lehen graduko senideek izango lukete beste baimen bat lortzeko lehentasuna.

12. ESKABIDEA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Lehenengo deialdi publikoa egingo da eta interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute urtarrilaren 8tik 21era bitartean:

1. Udalaren bulego teknikoak: Dublang Margolariaren kalea, 25; orduetgia: 08:30etik 14:00etara.
2. Herritarrei laguntzeko bulegoak.
3. Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>
4. Baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako beste edozeinetan ere.

Argibideetarako telefonoak: 010 eta 945-161100.

Eskaera posta ziurtatu bidez Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behe; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean, bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, baita bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari jakinarazi ere, posta elektronikoz(comercio@vitoria-gasteiz.org), eta betiere epearen azkeneko eguna baino lehen. Bertan jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita haren datak ere, eta deialdiaren eskaera-orriaren kopia bete erantsi beharko da. Bestela, ez da eskaria onartuko.

Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdiaren oinarriak onartzen direla esan nahiko du.

Titular eta titular-kideek eskabide bakarra aurkeztu ahal dute. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, Udal Erregistroan lehenik aurkeztu dena bakarrik hartuko da aintzat.

Lizentzien indarraldian zehar, eskaera berriak onartu ahal izango da, baita epez kanpo ere. Eskabide horiek itxarote-zerrenda batean sartuko dira hutsik dagoen saltokirik ez badago. Itxaron-zerrendako epez-kanpo aurkeztutako eskabide horiek, erregistroko sarrera-dataren arabera ordenatuko dira.



Eskabidean adierazi behar da zein egunetarako eskatzen den lizentzia (osteguna eta/edo larunbata).

Eskabidea aurkezten den azoka-kopuruaz aparte, ziurtagiri ofizialak behin besterik ez dira aurkeztu beharrik izango, baimen eskaerako batekin batera, eta honako hauek izango dira egiaztatari ofizial horiek: Ekoizpen ekologikoarena, nekazaritza ekologikora bihurtzearena, Jatorri-izendapenaren egiaztatzea, dagokion kontseilu arautzaileak emana, Nekazaritzako elikagaien kalitatearena, prestakuntza ikastaroetan izandako asistentzia eta aprobetxamenduari buruzkoak, Elbarritasun edo ezintasunen bat duela aitortzearena, Kontseilu arautzaileak emandako kalifikazio-dosierra...

13. ESKABIDEAREN DOKUMENTAZIOA:

1. Salmenta ibiltariko azokan saltokia jartzeko eskabidea eta eskatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko aitortpena, non Gasteizko Udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko udal ordenantzako eta deialdi honetako betebeharrak betetzen direla adierazten baitu.
2. Pertsona fisikoen kasuan: titularraren eta titularkideen nortasun-agiriaren fotokopiak, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, atzerritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatutako lan eta egoitza baimenen fotokopiak.
3. Pertsona juridikoen kasuan, eratze eskrituren fotokopia; eskatzailearen ordezkatzeko ahalmena jasotzen duen agiria eta Identifikazio Fiskalerako txartelaren fotokopia.
4. Nekazaritza/Abeltzaintza ustiategiaren erregistroaren egiaztatzea eta nekazaritza/abeltzaintza ustiategi edo antzekoaren fitxa, bakoitza dagokion administrazioak emana, lursailen kokapen zehatza, dagozkien eranskinak, jarduera eta produktuak agertzen dituztela. Eta behar izanez gero, makineria edo instalazio osagarriak.
5. Osasungarritasun erregistroaren zenbakia edo Autonomia-erkidegoen erregistroan egindako inskripzioa edo Osasun Baimena, dagokion administrazioak emana.

Halakorik baldin bada:

- Ekoizpen ekologikoaren egiaztatari ofiziala
- Nekazaritza ofizialera bihurtzearen agiria ofiziala
- Jatorri-izendapenaren egiaztatzea, dagokion kontseilu arautzaileak emana.
- Nekazaritzako elikagaien kalitate-agiria ofiziala (labela, ekoizpen kontrolatua, berme marka, etab.).
- Europako Batasunean azken hiru urteetan jarraian zerrendatuko diren esparruekin loturiko prestakuntza ikastaroetan izan duen asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko egiaztatari ofiziala, eskatzailearen izenean: bezeroari arreta eskaintzea, saltokiaren irudia, marketina, salgai jarritako elikagaiak eskuz egiteko prozesua, nekazaritza-ekoizpen teknikak, edo antzekoak.
- Elbarritasun edo ezintasunen bat duela aitortzeko ziurtagiri ofiziala, eskabidearen titularraren izenean.
- Ardoaren kasuan, azken kalifikazio-dosierra, dagokion kontseilu arautzaileak emana.



14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

14.1.- FRUITU ETA BARAZKIAK, PROSEZATU GABEKO PRODUKTUAK, OLIOA, EZTIA ETA ARDOA. Gehienez, 9 puntu:

1.1.- SALGAIK EKOITZI EDO EGIN DIREN LEKUAREN ETA AZOKAREN ARTEKO GERTUTASUN FISIKOA gehienez, 4 puntu.

- Produktuen zatirik handiena Gasteizko udalerrian ekoitzi edo lantzea: 4 puntu.
- Produktuak Gasteizko udalerritik kanpo ekoitzi edo lantzea, Arabako lurralde historikoko besteren batean: 3 puntu.
- Produktuen zatirik handiena Arabako lurralde historikotik kanpo, mugakide diren probintzietan ekoitzi edo lantzea: 2 puntu.

1.2.- PRODUKTUAREN KALITATEA: gehienez, 3 puntu:

- Egiaztatutako ekoizpen ekologikoa: 2 puntu gehienez.
- Ekoizpen ekologiko izateko bidean: 1 puntu gehienez.
- Kalitate egiaztatutako duen produktua, edo dagokion kontseilu arautzaileak emandako Jatorri Izendapena duena: 1 puntu gehienez.

1.3.- PRESTAKUNTZA: puntu 1 gehienez

Eskabidearen titularrak Europako Batasunean azken hiru urteetan jarraian zerrendatuko diren esparruekin loturiko prestakuntza ikastaroetan parte hartu izana: bezeroari arreta eskaintzea, saltokiaren irudia, marketina, salgai jarritako elikagaiak eskuz egiteko prozesua, nekazaritza-ekoizpen teknikak, edo antzekoak (elikagaien higiearen ingurukoa, eta derrigorrez eduki beharrekoa izan ezik).

Egiaztatutako prestakuntza ikastaroaren ordu kopurua aintzat hartuta balioetsiko da, eta gehienez ere puntu bat emango da:

- | | |
|------------------------------|------------|
| • 15 ordura arte: | 0,25 puntu |
| • 16 eta 30 ordu bitartekoa: | 0,50 puntu |
| • 31 eta 45 ordu bitartekoa: | 0,75 puntu |
| • 46 eta 60 ordu bitartekoa: | Puntu 1 |

1.4.- BESTE IRIZPIDE BATZUK PUNTU 1 GEHIENEZ

- Eskabidearen titularrak % 33ko edo hortik gorako elbarritasun edo ezintasunen bat izatea: 0,50 puntu.
- Gizarte-ekonomiaren forma juridikoak. 0,50 puntu

14.2 ESKUZ LANDUTAKO BESTE JANARI

Gainera, "Eskuz landutako beste janari" atalean, fruitu eta barazki, eraldatu gabeko produktu, olio, ezti eta ardoaren kasuan (9 puntu arte baloratuta) alde aurretik zehaztutako irizpide eta puntuazioez gain, beste 2 puntu arte baloratuko dira saltzen den produktua egiteko lehengai/osagai nagusia norberak ekoiztuz gero.



15. SALTOKIAK ESLEITZEKO PROZEDURA

Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenen bidez emango edo ukatuko dira eskatutako postuak, Udalaren Merkataritza Zerbitzuko teknikariek deialdiaren baldintzak betetzen direla egiaztatu eta eskabideak baloratu ondoren.

Eskabide horiek baloratu eta ordenatu egingo dira, 14. puntuan jasotako balorazio-irizpideen arabera. Berdinketa gertatuz gero, merkataritza-nahasturaren irizpide hartuko da kontuan, eta irizpide horrek ez badu erabakitze balio, zozketa bidez egingo da. Edonola ere, eskaera-kopurua esleitu beharreko postuena baino txikiagoa bada, edo kokalekuak esleitzeko ez bada beharrezkoa lehentasunik ezartzea, ez da balorazio hori egin behar.

Itxaron-zerrenda osatuko da esleipena eskuratu ez duten eskatzaileekin. Itxaron-zerrendako hurrenkera saltokiak esleitzeko irizpideen arabera erabakiko da. Berdinketa gertatuz gero, merkataritza-nahasturaren irizpide hartuko da kontuan; hala ere berdinketak berean jarraitzen badu, zozketa bidez egingo da.

Hutsik gera daitezkeen saltokiak honen arabera esleituko dira:

1. Plaza hutsari dagokion azpi-kategoriaren itxaron-zerrenda.
2. Plaza hutsari dagokion kategoriaren itxaron-zerrenda.
3. Gainerako kategorien itxaron-zerrenda
4. Deialdiaren indarraldian zehar irekitako sistema.

Eskatzaileek gehienez ere 3 toki hautatu ahal izango dute, erantsitako planoa kontuan hartuta, eta eskaera-orrian markatuko dituzte saltoki-zenbakiak nahi dutenaren arabera. Saltoki bera eskatzaile batek baino gehiagok nahi izanez gero, lehenengo erreparatuko zaio saltokiaren hurbiltasunari pasaden deialdiarekin, bigarren, eskuratutako puntuazioari, hirugarren merkataritzazko sortari, eta azkenik, zozketa bat egingo da. Eskatutako postuak esleitura egonez gero, eskatutako saltokitik hurbilen eta eskuragarri daudenak esleitzeari ekingo litzaioke. Kokalekurako preferentziarik adierazi ez diren eskabideetan, bete gabeko saltokiak hartuko dira kontuan.

Kokapenaren esleipenerako bi puntu gehigarri egokituko zaizkie fruitu eta barazki, eraldatu gabeko produktu, olio, ezti eta ardoari dagozkien eskaerei, artisau-elikagaiei eskainitako puntuazio arte parekatzeko, ekoizle izaera kategoria horren ezaugarriekin bat datorrela ulertuz.

Eskuragai dauden guztiak betetzeko adina saltoki sinpleen eskabiderik baldin ez balego –eta soilik kasu horretan–, saltoki bikoitzak esleitu ahal izango litzaizkieke aurretiaz hori eskatu dutenei. Saltoki bikoitzen esleipenerako, lehenik eta behin, barazki- eta fruta-produktuen kategoriako eskaerak hartuko dira kontuan, eta, bigarrenik, gozogintzakoak, eta hirugarrenik, gazta eta/edo eztiak. Berdinketa gertatuz gero, zozketa egingo da.

Soilik bete gabe dauden kategorietako eskabiderik ez balego gainerako kategorietako eskabideei emango litzaizkieke saltokiak, aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideen arabera.

Edonola ere, Udalak bere gain izango du saltokiak birkokatze eskubidea, eskariaren, antolaketa-premien eta pandemiak sor dezakeen egoeraren arabera.

Behin eskabideak balioetsita, bi zerrenda argitaratuko dira, bata esleipendunenena, bestea itxaron-zerrendan geratu direnena. Otsailaren 19tik aurrera izango dira eskuragai zerrenda horiek, 010 telefonoan eta Udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org)



16. ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipendunek jarraian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Gasteizko Udaleko herritarrei laguntzeko bulegoetan, irailaren 13tik 24ra bitartean:

1. Titularrari eta titularkideei (direla bazkide, direla soldatapeko) dagozkien Gizarte Segurantzako azken ordainagiriaren fotokopiak. Halakorik ez izatekotan, Gizarte Segurantzaren jardura hasi aurreko dagokion erregimenean emandako altaren fotokopia.
2. Azokan zehar, berorren ondorioz kalte-galerarik sortuko balitz ere, horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria eta poliza bera.
3. Titularraren eta titularkideen argazki bana, agiri tamainakoak.
4. Azoka honetan salmenta ibiltarian aritzeagatik Udalarari hileroko ordaindu beharrekoak helbidertuko zaizkion kontu-zenbakiaren titulartasunaren ziurtagiria.
5. Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren alta, edo Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren barruan dagoen epigrafean alta eta baje egiaztatzea.
6. Soldatapeko langilerik badu: TC2 edo azken hilabeteko langileen zerrenda izenduna, Gizarte Segurantzak jaulkia.

Pertsona fisikoa bada ekoizlea:

7. Eskura dauden bitartekoak (II. Eranskina)
8. Produktuen urteko aurreikuspena (Artisauen kasuan III. Eranskina, eta nekazarien kasuan IV. Eranskina).
9. Landaketan dauden lursailen adierazpena, lursail bakoitzerako jabetza-titulua edo alokairuko erantsita. (V. Eranskina)

Esleipendun suertatu direnek emandako epean beharrezko agiri guztiak aurkezten ez badituzte, horien eskabidea ezetsizat joko da.

Aurretik adierazitako agiriak aurretiaz aurkeztu direlarik, Udaletxeko bulego teknikoetan —Teodoro Du-
blang margolariaren kalea, 25— jaso beharko dira lizentziak, martxoaren 11tik 14ra bitartean —
ordutegia: 8:30etik 14:00etara—. Titularrak edo titularkideak jaso beharko dute, nortasun agiria aurkez-
tuta —Europar Batasunaz kanpoko kasuan, atzeritarren alorrean indarrean dagoen legeriak eskatzen
dituen lan eta egoitza baimenaren fotokopia—. Era berean, hirugarren bati ahalmena eman ahal izango
zaio baimena jaso ahal izateko, idatziz baimentzen badu eta NANaren edo horren baliokidea (Europar
Batasunaz kanpoko kasuan) den fotokopia erakutsita.

17. AKATSAK ZUZENTZEA

Saltokia jartzeko eskabideei ez bazaizkie deialdian derrigorrez eskatzen diren agiriak gehitzen, Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992
Legearen 71. artikulua ildotik, eskatzaileei hamar egun naturaleko epea emango zaie akats eta oke-
rrak konpondu edo falta zaizkien agiriak aurkez ditzaten. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean es-
kabidea bertan behera utzizkotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta lege beraren
42.1 artikulua aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.



18. JARRAIPEN-BATZORDEA

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailari dagokio Simon Bolibar plazako barazki eta fruituen nahiz eskuz landutako elikagaien ekoizleen azoka kudeatzea. "Hautatze eta Jarraipen Batzorde" bat eratuko da horretako, honako hauek osatua:

- Udaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren zuzendaria, edo ordezko izendatzen dituen pertsona.
- Santa Barbara plazako salmenta ibiltariko azokako saltzaileen bi ordezkari.
- UAGaren ordezkari bat.
- Arabako Xehetako Merkataritza elkartearen ordezkari bat.
- Elikagai Merkatuko Merkatarien Elkartearen ordezkari bat.
- 'Bionekazaritza'ren ordezkari bat.

Batzordea Zerbitzuaren Zuzendaritzak eskatuta deituko da, eta gai hauek landu ahal izango dira besteak beste:

1. Azokako merkataritza-nahastura.
2. Simon Bolibar plazako Salmenta Ibiltariko Merkatarien Udal Erregistroan sartzeko eskabideez irizpena.
3. Azokan egin beharreko kontrolak proposatzea, eta zein produktu ikuskatu behar diren aholkatu edo jakinaraztea.
4. Azoka arautzen duen araudia betearazteko neurriak proposatzea.
5. Saltzaile eta kontsumitzaileek egindako hobekuntza-iradokizunak jaso eta bideratzea.

19. KONTROLA ETA EGIAZTAPENA

Gasteizko Udalak edo ordezkatzeko erakundeak behar diren kontrol ekintzak egingo ditu, bai ofizioz, bai Hautatze eta Jarraipen Batzordeak proposaturik, lizentzia jaso duten saltokiak behar bezala erabiltzen direla eta horietan bideratzen den jarduera ebatzen honetan, kaleko salmenta arautzeko ordenantzan (BOTHA 143 zk. 2016ko abenduaren 21a) eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetan xedatutakoa-ekin bat datorrela bermatze aldera.

Produktuak, jarduerak, ibilgailuak eta instalazioak ikuskatu ahal izango ditu horretarako, eta behar diren argibideak eta agiriak eskatu saltzaileei.

20. LIZENTZIA

Honako datuak jasoko dira baimenean: saltokiaren titularraren izen-abizenak eta argazkia, titularkideen (direla bazkide, direla soldatapeko) izen-abizenak eta argazkiak, dagokien saltokiaren zenbakia, saldu dezaketen lekuak, baimendutako produktuak eta esleipenaren indarraldia ere. Horrez gain, balizko erreklamazioak bideratzeko eskatzaileek eman duten helbidea ere gehitu ahal izango da.

Vitoria-Gasteizko udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzaren 18.15 eta 19 d) artikuluen arabera, baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira; titularrak ez dena ezingo du jardun ez eta transmititu ere, heriotza edo ustiategiaren belaunaldi-aldaketa kasuetan izan ezik.

Oro har, lizentzian edozein aldaketa egiteko, deialdia egin duen administrazioarekiko ordainketak egunean izan behar dira.

21. LIZENTZIA BERRITZEA

Oro har, urtero berrituko da baimena. Horretarako, berritzeko eskabidea aurkeztu behar da, baita lizentzia emateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko gainerako dokumentazioa ere.



Merkataritza Zerbitzuak, esleipendunen baimena izanez gero, ofizioz egiaztatuko du deialdiak ezarritako eta aurreko ataletan jasotako nahitaezko baldintzak betetzen direla. Hala ere, nahikoa informazio ez duenean, dagokiona egiaztatzeko dokumentazioa eskatu beharko du.

Egiaztatzeko ekintzetatik ondorioztatzen bada ez direla betetzen deialdiaren oinarriak edo indarrean dagoen gainerako legerian ezarritakoa, lizentziaren baliogabetzea izapidetuko da, eta ez da kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik emango, Salmenta Ibiltariari buruzko Udal Ordenantzen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera (2016ko abenduaren 21eko ALHAO, 143. zk.).

22. BAIMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hauek izango dira salmenta-baimena iraungitzeko arrazoiak:

- Indarraldia bukatzen denean.
- Titularrak uko egitea, edo hiltzea.
- Baimena ematekotan bete beharreko baldintzetakoren bat betetzeari uztea.
- Eskatzen diren tasa edo kanonak ordaintzen ez badira.
- Kaleko salmenta arautzeko udal ordenantzen 7. artikuluen ildotik baliogabetzea.
- Baimena galtzea dakarren zigorra ezartzen bada.

23. HUTSEGITEAK ETA ZIGOR ERREGIMENA

Kaleko Salmenta arautzeko Udal Ordenantzen VI. kapituluko 34. artikuluan adierazten dena izango da arau-hausteen sailkapena.

Udal agintariak, beren zaintza eta kontrol zereginen bitartez, ebazpen honetan jasotako xedapenak, kaleko salmenta arautzeko ordenantzen finkatutakoak eta jarduerari nahiz saltzen diren produktuei aplikagarri zaizkien gainerako lege-arauak betetzen direla bermatuko dute. Gasteizko Udalak, beharrezko diren kontrol-ekintzak egiteko udala ordezkatzeko duen erakundeak egindako txostenak har ditzake oinarri lizentziak baliogabetzeko.

Araudi hori betetzen ez bada, arauzko dossier zigortzailea izapidetzeari ekingo zaio, dela ofizioz, dela eskumena duen organoak edo interesdunen batek hala eskatzen duelarik.

Lizentzia eman zuen organoak izango du eskumena dosierra abiarazteko eta, behar izanez gero, egokitzat jotzen duen erabakia hartzeko.

Probidentzia baten bitartez abiaraziko da dossier zigortzailea; jakinaren gainean jarriko dira ustezko arau-hausleak eta, aldi berean, arrazoiak eta inguruabarrak azalduko zaizkie, baita ustez zein arau hautsi duten eta dosierra bideratzeko idazkari eta instruktore nor izendatu diren ere, eta hamabost egun naturaleko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako legedi orokorrean aurreikusitakoa aplikatzeaz gain, Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean xedatutakoaren arabera zigortuko dira arau-haustekak.

24. KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULA

Gasteizko Udalaren Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Sailak eskatzaileei jakinaraziko die haien datu pertsonalak fitxategietan sartuko direla, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoa betetze aldera, udalaren kudeaketa lanak egin ahal izateko, eta horren aurka, aipatu Legeak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi izanez gero, Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera jo daitekeela.

Deialdia ebatzi ondoren, Gasteizko Udalaren iragarki-taulan nahiz web-orrian argitaratu ahal izango dira emaitzak.